

# AHOLKU-SAREAren MEMORIA

## “Atzerritartasunaren alorrean Aholkularitza Juridikoa eskaintzeko Euskal Sarea”

2020



## AURKIBIDEA

**1.- AHOLKU-SAREAREN JATORRIA eta XEDEA**

**2.- JARDUERA PRINTZIPIOAK**

**3.- SAREAREN EGITURAKETA: ESKU HARTU DUTEN ERAGILEAK**

**3.1.- Gizarte-erakundeak**

**3.2.- Abokatuen Elkargoak**

**3.3.- Biltzen -Integratioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua-**

**3.4.- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila – Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza-**

**4.- EKIMENAK 2020**

**5.- EBALUAZIOA 2020**



## 1.- AHOLKU-SAREAREN JATORRIA eta XEDEA

Arreta juridikoko zerbitzu honek «Heldu» izeneko aurreko zerbitzuaren lekukoa hartu du, hura itxi ostean; 2010eko bigarren seihilekoan ekin zion ibilbideari eta 2011. urte hasieran eman zituen lehen urratsak.

Aholku-Sareak, Eusko Jaurlaritzako sustatutako gailua den aldetik, **lehen hurbilketa batean oinarritzen du helburua**; atzerritartasunaren arloan aholkularitza juridikoa ematen die kalteberetasun egoeran dauden etorkinei eta administrazio publikoko langileei eta gizarteratze-prozesuetan lan egiten duten hirugarren sektoreko gizarte-erakundeei ere.

Horrekin guztiarekin, EAEn egoera irregularrean dauden atzerritar migratuen integrazioa eta inklusioa erraztu nahi da, haien administrazio-erregularizazioaren bidez. Aldi berean, adingabearen interes gorenaren mesedetan, bai eta familian bizitzeko eskubidearen egikaritza sustatzearren ere, familia berrelkartzeko prozesuak babesten dira; izan ere, familia-loturak egoteak, batzuetan, erraztu egiten du immigranteei sartzeko, bizilekua izateko eta lan egiteko baimenak eskuratzeko bidea.

Gizakia euskal politika publikoa informatzen duen gune eta printzipio gisa hartzeak, Euskadiko etorkinen kolektiboa euskal gizarte integratzailearen parte gisa hartzera eramaten du, kultura eta ekonomia aberastasunari dagokionez balio izugarria duen giza kapitala adieraziz.

## 2.- Aholku-Sarearen jarduera-printzipioak

Hauek dira Aholku-Sarearen barne -nahiz kanpo- funtzionamendua arautzen duten jarduera-printzipioak:

→ Ekintza hainbat esku-hartze mailatan banatzen duen zerbitzua; zuzeneko edo aurrez aurrekoa eta zeharkakoa edo telematikoa.

→ Erabiltzaile mota desberdinei erantzuna ematera bideratua.


→ Esku-hartze maila ezberdinei erantzuna emateko, profila kontuan hartuta hautatutako eta partaidetzazko egitura zabala osatzen duten

hainbat eragiletan oinarrituta egituratua: zuzenekoa eta zeharkakoa edo bigarren mailakoa.

Xede horretarako, prestatutako sistema hiru ardatz nagusitan oinarritzen da, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak koordinatuta: Gizarte-erakundeak, Abokatuen Elkargoak eta Biltzen:

- **Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza**, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Saila
- **Biltzen - Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua**
- **Zazpi gizarte-erakunde** (Cear-Euskadi; Gurutze Gorria-Euskadi, Bilboko Elizbarrutiko Caritas, Kosmopolis, SOS-Arrazakeria Gipuzkoa, LAIZ-CCOO eta Adiskidetuak)
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako **Abokatuen** hiru **Elkargoak**

→**Lurralde-estaldura zabala**: aurrez aurreko aholkularitza ematen duten gizarte-erakundeen **lurralde-banaketa** hau da:



→ **Sarean** egiten da lan: Aholku-Sarea hainbat eragileren artean egituratuta dago eta horiek ikuspegi bakarra partekatzen dute, bai diskurtsoari, bai erreferentziari dagokionez.

→ **Barne- eta kanpo-koordinazioan.** "*Barneko*" moduan jarduteko adostasunean islatzen da, nahiz eta eragile bakoitzak "*katedra*" edo ikuspegi askatasuna duen lanaren egunerokoan aurre egin beharreko kasu praktikoetan. Kanpora begira, erreferentziakoak diren bestelako zerbitzu edo erakunde publikoekiko koordinazioan eta lankidetzan egiten da aurrera (Arartekoa, atzeritartasun-bulegoak, gizarte-zerbitzuak, immigrazioko teknikariak, Lanbideko langileak, udaletako eta aldundietako hainbat zerbitzu...), helburu komun bat lortzeko ahaleginak erraztu eta batuko dituen elkarlaneko erakunde-sare bat antolatzeko.

→ Erantzukizun publikoko zenbait alorren **egituraketa alor sozialeko** erreferentziako profesionalen **bidez**: Aholku-Sareak eskaintzen duen

aurrez aurreko arreta gizarte-erakundeetan eta Abokatuen Elkargoetan oinarritzen da nagusiki. Ildo horretatik, erakundeok elkarren artean sendotzen dira, eta Administrazio Publikoak, kasu honetan Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren bitartez, immigranteen bizitza normalizatzerako bideratutako politikak sustatzen ditu.

→Herritar guztiei zuzendutako **gailu** den aldetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntza publikoaren mendeko zerbitzua da, integratzeko xede argia duena atzerritarren egoera administratiboa normalizatuz.

→Zerbitzu-kontzientzia, osatzen duten eragileen artean **dinamika osagarri eta elkarren mendeko** gisa, herritarrei bideratua integratzeko xede argiarekin.

→**Feedbackean oinarrituta**: Aholku-Sarea osatzen duten eragileek horrek jatorrian dituen politika publikoak berak hornitu ere egiten dituen gailu edo sistema osatzen dute, jarraibide orokorrei buruzko informazioa eguneratuz eta Euskadiko migrazio-fenomenoaren egoerari buruzko diagnosi eguneratu eta zehatzagoa egiteko elementu gisa baliatuz.

### 3.- SAREAREN EGITURAKETA, HORI OSATZEN DUTEN ERAGILEEN ARABERA

#### 3.1 Gizarte-erakundeak

##### 3.1.1.- ADISKIDETUAK

###### A.- Sarrera

2000. urtean sortutako erakunde txikia da, jatorri etorkina eta bertakoa duten pertsonen osatua, eta, haren helburu nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira: komunitate immigranteen eta tokiko komunitateen arteko bizikidetzaren hobetzeko, sustatzeko eta kulturen arteko gatazkak prebenitzeko jarduerak eta proiektuak kudeatzea eta gauzatzea.

Adiskidetuak Aholku-Sarearen parte izan da lan-sare hori eratu zenetik.

## B.- Lan taldea

Adiskidetuak taldeko kideak etorkinak eta bertakoak dira, bai profesionalen artean, bai boluntarioen artean. Arreta, nagusiki, bi abokatuk eta kultura-bitartekari batek ematen dute.

Adiskidetuak taldea honako hauek osatzen dute:

- **Abokatuak:** María Luisa Arocena
- **Abokatuak:** Rocío Calderón
- **Administrazioa, kontabilitatea eta laguntza:** Karla Zavala

## D.- Arretarako lekua eta ordutegia

Kasu honetan, zerbitzua Irunen kokatutako zentrotik eskaintzen da –lan eremua Irun, Oarsoaldea eta Donostialdea izanik-, astean bost egunetan. Zerbitzu hau astelehenetik ostiralera ematen da. Astelehenetik ostegunera 8:00etatik 15:00etara eta ostiraletan 8:00etatik 13:00etara.

## E.- Datu estatistikoak

2020an **1.323 erabiltzaile** artatu dira guztira (**806 emakumezko eta 517 gizonezko**).

**35** herrialdetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak, hoietatik asko neskameak, etxeko zerbitzuen alorreko eskaera handia dela-eta. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Nikaragua, Kolonia, Maroko, Honduras, Brasil, Nigeria, Ecuador edo Ghana.**

2020an **14 profesional** artatu dira (**7 emakumezko eta 7 gizonezko**).

Aurten **20 kasu desbideratu** dira Gipuzkoako Abokatuen Elkargora.

Azkenik, azpimagarria da entitateak arreta emandako enplegu-emaile kopurua handia, hain zuzen ere 56 enplegu-emaileen kontsultak aztertu ziren eman die arreta (36 emakumeek egindakoak eta 20 gizonezkoak).

## LAIZ-CCOO

### A.- Sarrera

Egoera larrian bizi ziren langile-etorkinei aholkularitza juridikoa eskaintzeko jaio zen Cite elkarteak. Gaur egun, urte askotako eskarmentua barneratu eta gero, lan esparruan informazioa, orientazio eta aholkularitza eskaintzen duen erreferentziako puntuan bilakatu da.

Langile atzerritarrentzako informazio-zentroak 1994an sortu ziren Euskadin. Comisiones Obreras sindikatuaren – CCOO – ekimenez, langile etorkinek zituzten arazo orokor eta espezifikoek babesa eta erantzuna emateko tresna bat sortu zen. Hasiera-hasieratik, zerbitzu-izaerari eusten dio, eta erreferentzia-puntu ukazina da; informazio, orientazio, aholkularitza-gailu eta gizarte eta lan-bitartekaritzarako tresna baita.

Gaur egun, esperientzia eta jakintza urte luzeen ondoren, lan-arloan espezializatutako informazio-gune, orientazio-gune eta aholkularitza-gune orokor gisa eratu da.

Cite Aholku-Sarearen parte izan da gailu hau eratu zenetik.

### B.- Lan taldea

Proiektuaren exekuzioan **bi abokatu** hartzen dute parte.

- **Abokatuak:** Paloma Merino
- **Abokatuak:** Mayra Colado

### D.- Arretarako lekua eta ordutegia

Kasu honetan, zerbitzua Bilbon kokaturiko zentrotik eskaintzen da –lan eremua Bizkaia osoa izanik-, astean bost egunetan. Erabiltzaile gehienak



Bilbotik eta Bilbo ingurutik etorri dira edo bertan bizi dira, beste eskualde batzuetatik ere etorri diren arren, neurri txikiagoan bada ere.

Zerbitzu hau astelehenetik ostiralera ematen da. Astelehenetik ostegunera 9:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era, eta ostiraletan 9:00etatik 14:30era.

## E.- Estatistika

2020an **2.170 erabiltzaile -2.682 kontsulta-** artatu dira guztira (**1.066 emakumezko eta 1.104 gizonezko**).

Etortzen diren pertsonen hainbat nazionalitatekoak izaten jarraitzen badute ere, hala ere herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Paraguay, Senegal, Nikaragua, Maroko, Bolivia, Nigeria, Perú eta Kolombia.**

2020an **257 profesional** artatu dira (**153 emakumezko eta 104 gizonezko**). Aurten **61 kasu desbideratu** dira Bizkaiko Abokatuen Elkargora.

## KOSMOPOLIS

### A.- Sarrera

Kosmopolis erakunde txikia da, 2010. urtean eratua, atzerriko nahiz bertako boluntarioek eta profesionalak osatua, eta migrazio- eta toki-jatorri desberdineko komunitateen arteko kulturen arteko bizikidetzaharremanak erraztea du helburu nagusi. Bere lana kulturartekotasunetik, testuinguruan kokatuzetik eta kultura desberdinekiko errespetutik bideratuta dago, laguntza, informazio, orientazio eta aholkularitza lanak eginez; bere espezialitateagatik nabarmentzen da homologazioaren, ikasketen baliozkotzearen eta kualifikazio profesionalaren onarpenaren eskakizunen eta prozeduraren arloan.

### B.- Lan taldea

Kosmopoliseko taldea honako hauek osatzen dute:

- **Abokatua:** Miguel Angel Viñas
- **Abokatua:** Darling Francia
- **Lehen arreta:** Josu Erdozain

## D.- Arretarako lekua eta ordutegia

Kasu honetan, zerbitzua Getxon kokatutako zentrotik eskaintzen da –lan eremua Uribe Kosta izanik-, astean bost egunetan.

Zerbitzu hau astelehenetik ostiralera ematen da. Astelehenetik ostegunera 9:30etatik 14:30etara eta ostegunetan 16:30etatik 19:30etara.

## E.- Datu estatistikoak

2020an **1.285 erabiltzaile -1.731 kontsulta-** artatu dira guztira (**959 emakumezko eta 326 gizonezko**).

2020an **96 profesional** artatu dira (**67 emakumezko eta 29 gizonezko**).

Aurten **8 kasu desbideratu** dira Bizkaiko Abokatuen Elkargora.

**40** herrialdeetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonen hainbat nazionalitateak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Bolivia, Colombia, Honduras, Nicaragua, Paraguay, Perú, Maroko, Venezuela edo Senegal.**

## GURUTZE GORRIA - EUSKADI

### A.- Sarrera

Boluntarioek eta profesionalak, eta atzerritar eta bertako jatorria dutenek, osatzen dute elkarteak.

Gurutze Gorria botere publikoen laguntza duen erreferentziazko erakunde humanitario bat da. Ibilbide luzea egin du pertsona eta gizarte-talde ahulei eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenei arreta ematen. Etorquinek eta bertakoek osatzen dute, eta askotariko zerbitzuak ematen ditu.

Horrela, bada, azpimarratzekoa da Gurutze Gorriak **Migrar Fundazioa** sortzea sustatu zuela, migrazioen esparruan elkarreraginean jarduteko, haien kausak eta ondorioak aztertuz. Ideia hori Gurutze Gorriaren ekimenez eta bultzadaz sortu da, estatuari zuzendutako migrazio-mugimendu berrien erronkaren aurrean, eta horrek azken hamarkadetan etorkinen estatu hartzaile bihurtu du.

Euskadiko Gurutze Gorria Aholku-Sareko kide izan da gailu hori eratu zenetik.

## B.- Lan taldea

Zerbitzu hori bultzatze aldera, Gurutze Gorria-Euskadik gaien **adituak diren 8 abokatu** ditu eta zerbitzuak ondo funtzionatzen laguntzen duen boluntarioen taldea.

Gurutze Gorriko taldea honako hauek osatzen dute:

- **Abokatua:** Lucía García (Araba)
- **Abokatua:** Montserrat Masot (Araba)
- **Abokatua:** Raquel Pacho (Araba)
- **Abokatua:** Iñigo Portilla (Bizkaia)
- **Abokatua:** Artzai Pina (Bizkaia)

- **Abokatua:** Juan Carlos de Pablo (Gipuzkoa)
- **Abokatua:** Jone Sainz (Gipuzkoa)
- **Abokatua:** Idoia Labayen (Gipuzkoa)

#### D.- Arretarako lekua eta ordutegia

Kasu honetan, zerbitzua Bilbo, Donosti, Gasteiz, Eibar, Ondarrua, Portugalete, Getxo, Agurain, Laudio, Espejo, Laguardia eta kanpezu kokatutako zentruetatik eskaintzen da zerbitzua -lan eremua Euskal Autonomi Erkidego osoa izanik-.

Zerbitzu hori astelehenetik ostiralera ematen da hiru hiriburuetan eta gainerako lekuetan ordutegi desberdinak dituzte, inguruabarren eta beharren arabera.

#### E.- Datu estatistikoak

2020an **1.682 erabiltzaile -6.681 kontsulta-** artatu dira guztira (**863 emakumezko eta 819 gizonezko**).

2020an **632 profesional** artatu dira (**464 emakumezko eta 168 gizonezko**).

Aurten **110 kasu desbideratu** dira Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Abokatuen Elkargoetara.

**70** herraldetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Maroko, Kolonbia, Nikaragua, Brasil, Bolivia, Senegal, Argelia, Venezuela, Paraguay edo Nigeria.**

#### CEAR-EUSKADI

## A.- Sarrera

Immigranteak eta bertakoak daude elkartea osatzen duten profesionalen eta boluntarioen artean.

CEAR 1979an jaio zen. Hamar urte geroago, 1989an, pertsona talde batek asilo-eskubidea eta giza eskubideak defendatzeko konpromisoa hartu zuen, CEAREN eskutik. 1996an, CEAR-Euskadi nortasun juridiko propioa duen elkarte gisa eratu zenean, sendotu egin zen haren lana.

Horrela, CEAR-Euskadi arreta juridiko espezializatuko zerbitzuak ematen ari da EAEn, zehazki Bilbon, 1989tik, CEAREK Euskadin duen ordezkari gisa. CEAR-Euskadi eratu ondoren, eta Vitoria-Gasteizko Udalak Gasteizen arreta juridikoko zerbitzu bat erreproduzitzeko beharra antzeman zuenez, 1998ko urtarrilean abian jarri zen Atzerritarren Laguntza Juridikoko udal-zerbitzua, eta CEAR-Euskadik kudeatzeko ardura hartu zuen. Urte hauetan zehar, asko izan dira atzerritarrentzako laguntza juridiko espezializatu eta doakoaren aldaketak; izan ere, ofiziozko txanda espezializatuak sortu ziren, Heldu zerbitzua, edo Eusko Jaurlaritzak UCAI eratu zuen. Hala ere, CEAR-Euskadik etengabe eskaini du arreta juridikoa, neurri handiagoan edo txikiagoan, eta erreferentzia bihurtu da hiriko etorkinentzako arreta juridikoan.

CEAR Euskadi Aholku-Sareko kide izan da eratu zenetik

## B.- Lan taldea

Honako hauek osatzen dute Cear taldea:

- **Koordinatzailea:** Javier Canibel
- **Abokatua:** Miguel Angel Viñas
- **Abokatua:** Suniva Martinez

## D.- Arretarako lekua eta ordutegia

Kasu honetan, zerbitzua Gasteizen kokaturiko zentrotik eskaintzen da, astean bi egunetan, astearteetan eta ostegunetan ematen da. 8:00etatik 15:00etara.

## E.- Datu estatistikoak

2020an, **490 erabiltzaile** -530 kontsulta- artatu dira guztira (**223 emakumezko eta 267 gizonezko**).

2020an **3 profesional** artatu dira (**gizonezko bat eta 2 emakumezko**).

Aurten **4 kasu desbideratu** dira Arabako Abokatuen Elkargora.

**50** herrialdeetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitateak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Kolombia, Nigeria, Argelia, Maroko, Sahara, Senegal edo Venezuela**.

## CARITAS

### A.- Sarrera

Bilboko Caritaseko zerbitzu juridikoa 1990. urteaz geroztik eskaintzen da, *Hurbil abokatuen bulegoarekin* sinatutako zerbitzuen errentamendu kontratuaren bidez.

Eliza Katolikoaren baitako erakundea da, 1956. urtean eratua, eta helburu nagusia jarduera eta ekintza sozialak egitea du. Bilboko Elizbarrutiko Caritasen zerbitzu juridikoa 1990etik ari dira ematen, boluntarioek eta profesionalek -hainbat origenotakoek-.

Proiektu hau Bilboko Elizbarrutiko Caritasen *Zerbitzu Juridikoak* eta erakunde bereko *Nazioarteko Lankidetzak eta Migrazioak* arloak garatzen dute:

1. Bilboko Elizbarrutiko Caritasen zerbitzu juridikoak aholkularitza ematen die baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonari, beren eskubideak aitortu eta erabat egikaritu ditzaten.

Hurbiltasunaren eta laguntzaren bidez, arreta horrek pertsonen egoera juridiko-administratiboarekin lotutako dimentsioa behar bezalako bermekin garatzen laguntzen du.

2. Nazioarteko Lankidetzaren eta Migrazioen arloak prestakuntza, sentsibilizazioa, eragina eta salaketa ditu ardatz immigrazioaren, asiloaren eta herrialdeen arteko harreman desberdinen arloan. Gainera, nazioarteko lankidetzaproiektuak garatzen ditu eta Elizbarrutiko Caritasen Zerbitzu Juridikoa koordinatzen du.

Bilboko Elizbarrutiko Caritas Aholku-Sareko kide izan da 2010ean sortu zenetik.

#### **D.- Arretarako lekua eta ordutegia**

Kasu honetan, zerbitzua Bilboko bulegoetatik ematen da Bizkaiko lurraldean bizi direnentzat, astean bi egunetan. Astearteetan 9:30etik 14:00etara eta ostegunetan 9:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:00etara

#### **B.- Lan taldea**

Taldea honetan parte hartzen dute:

- **Koordinatzailea:** Susana Cuesta
- **Abokatua:** Genma Escapa
- **Abokatua:** Juan Carlos Pablo

#### **E.- Datu estatistikoak**

2020an **372 erabilizaile -561 kontsulta-** artatu dira guztira (**194 emakumezko eta 178 gizonezko** ).

2020an **301 profesional** artatu dira (**192 emakumezko eta 109 gizonezko**).

Aurten **15 kasu desbideratu** dira Bizkaiko Abokatuen Elkargora.

Guztira, **45 nazionalitatetako** pertsonak bertaratu dira. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Maroko, Kolonbia, Bolivia, Argelia, Nigeria, Senegal, Brasil edo Venezuela.**

## **SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA**

### **A.- Sarrera**

1993. urtean jaiotako elkarte. Immigranteak eta bertakoak daude elkarte osatzen duten profesionalen eta boluntarioen artean.

Kasu honetan, arreta eta aholkularitza zerbitzua Gipuzkoan eskaintzen da asteen lau egunetan (Errenteria, Zarautz, Beasain eta Arrasaten). Atzerriartasunaren alorrean ibilbide oparoa duten abokatuak egiten dute arreta.

SOS Arrazakeria Gipuzkoa Aholku-Sareko kide da 2015etik.

### **B.- Lan taldea**

Honako hauek osatzen dute SOS-Arrazakeria taldea:

- **Koordinatzailea:** Mikel Mazkianan
- **Abokatuak:** Nora Ugarteburu eta Elena Stati

### **D.- Arretarako lekua eta ordutegia**

Kasu honetan, zerbitzua hurrengo lau udalerrietan eskaintzen da:

**Errenteria:** ostegunetan, 10:00etatik 14:00etara

**Zarautz:** astelehenetan, 10:00etatik 14:00etara

**Beasain:** astearteetan, 16:00etatik 20:00etara

**Arrasate:** ostegunetan, 10:00etatik 14:00etara



## E.- Datu estatistikoak

2020an, **502 erabiltzaile -527 kontsulta-** artatu dira guztira (**314 emakumezko eta 188 gizonezko**).

2020an **17 profesional** artatu dira (**6 gizonezko eta 11 emakumezko**).

Aurten **11** kasu desbideratu dira Gipuzkoako Abokatuen Elkargora.

**20** herrialdetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatekoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Maroko, Nikaragua, Kolonia, Bolivia, Brasil eta Ecuador**.

### 3.2.- Abokatuen Elkargoak

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoak zuzenbide publikoko eta irabazi-asmorik gabeko korporazioak dira eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko abokatuen kolektiboek osatzen dituzte. Elkargo horiek alde batetik, funtzio publikoa betetzen dute, hau da, Konstituzioan adierazitako Zuzenbidearen Estatu sozial eta demokratikoa babesten dute eta giza eskubideak indartu eta babesten dituzte, eta Justizia Administrazioaren funtzionamendua ere sustatzen eta hobetzen ahalegintzen dira; bestalde, funtzio soziala betetzen dute, herritarren interesen alde ahalik eta zerbitzu onena eskaintzen dutelako, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak defendatzen dituztelako eta doako laguntza-zerbitzua hobetzean lan egiten dutelako etengabe.

Euskal zerbitzu juridiko honen bitartez honako hau bilatzen da: kalteberatasun-egoeran egonik bere dokumentazioa izapidetu behar duen biztanleria etorkinari gizartean integratzeko laguntza-sistema ezartzea; izan ere, kasuen konplexutasunagatik, zehaztasunagatik eta eskatzen duten denboragatik eta etorkinen baliabide ekonomikorik ezagatik gaur egun laguntza hori, gizarte-erakundeekin batera, abokatuen elkargoek eskain dezakete, atzeritartasun-gaietan espezializatuta dauden abokatuen bitartez, hain zuzen ere.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, 2020. urtean Abokatuen Elkargoek eskainitako zerbitzuak hauek izan dira:

- Ordaindutako desbideratzeen kopurua: **243**
- Desbideratzeen kopurua, **kontsulta** moduan: **9**
- Desbideratzeen kopurua, **izapidetze** moduan: **44**
- Desbideratzeen kopurua, **errekurtso** moduan: **189**
- Desbideratzeen kopurua, **tramitazio+errekurtso** moduan: **1**

Zehazki, **Bizkaian 122** (%50,22), **Gipuzkoan 94** (%39,00) eta **Araban 27** (%10,37) **zerbitzu kudeatu dira.**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetako atzeritartasuneko txanda espezializatua 430, gutxi gorabehera, abokatuz osatuta dago gaur egun (Gipuzkoa: 137; Bizkaia: 199; Araba: 95)

Hauek dira letraduek gara ditzaketan ekintza espezifikoak:

- **Kontsultak:**
- **Izapidetzeak**
- **Errekurtsoak**
- **Gainera**, zerbitzuak bildu dezake izapidetzearen + errekurtsoaren konbinaketa bat.

Nolanahi ere, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak erabakiko du zein kasu desbideratuko diren Abokatuen Elkargoetara.

**Abokatuen Elkargoen ordezkariak dira.**

- **Bizkaiko Abokatuen Elkargoa:** Inmaculada Pérez

- **Arabako Abokatuen Elkargoa:** Iñaki Eguiluz (Gemma Escapek ordezkatu zuen).
- **Abokatuen Elkargoa:** Cristina García

### 3.3.- Biltzen – Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua

Immigrazio, herritartasun eta kultura arteko bizikidetzari buruzko euskal politika Biltzen baliabide teknikoaz baliatzen da euskal herritar guztien integrazioa bultzatzeko, jatorria, hizkuntza, erlijiozko kidetzapena eta abar albo batera utzita.

Era berean, kultur aniztasunaren eta bizikidetzaren kudeaketan hartzen du parte herritarren ikuspegi inklusibotik eta baita diskriminazioaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan ere.

Biltzen elkarteak zeharkako planteamenduaren mendean garatzen du bere jarduera, euskal gizarteko hainbat sektoretan diharduten administrazio eta eragileei lagunduz: enplegua, osasuna, etxebizitza, kultura eta abar.

Jabetza publikoko zerbitzu hori 2004. urtean sortu zen Immigrazioko lehen Euskal Planaren babesean eta 2010. urtean txertatu zen zerbitzuan alor juridikoa, eta horixe txertatu da esku hartzeko bigarren mailako eragile gisa Aholku-Sarea Zerbitzuan.

Biltzen elkarteko alor juridikotik aholkularitza-zerbitzuak garatzen dira euskal politika publikoetako ekimenen, proiektuen, zerbitzuen eta kudeaketa-sistemen definizioan, abiaraztean eta ebaluazioan, hain zuzen ere:

- Prestakuntza-planak prestatzeko aholkularitza; jardunaldi teknikoak zerbitzuko erreferentziazko alorretan.
- Euskarri, material didaktiko eta dibulgazioko materialen prestaketa atzerriartasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean.

- Aholkularitza juridikoa ematea Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunari atzerriartasun-eskubidearen arloan, bai eta gai horrekin zerikusia duten beste arlo juridiko batzuetan ere, besteak beste, adingabeak, giza eskubideak eta asiloa.
- Atzerriartasunari buruzko informazioa eta aholkularitza juridikoa eta Aholku-Sarearen barruan espezializatutako baliabideetara desbideratzea, hau da, Abokatuen Elkargoetara eta Aholku-Sarea osatzen duten gizarte-erakundeetara.
- Atzerriartasunari buruzko informazio-saioen programaren kudeaketa, Aholku-Sarearen barnean.
- Kudeaketa eta esku-hartzea hobetzera bideratutako eta administrazio publiko, hirugarren sektore, elkarte eta abarretako profesionali zuzendutako prestakuntza-zerbitzuak.

**Aholkulari** hauek osatzen dute alor juridikoa:

- **Leire Garrastatxu (abokatua)**
- **Nuria Martínez (abokatua)**
- **Pablo Pascual (abokatua)**

BILTZENek **3.342** kontsulta aztertu ditu; **profesionalen, 1.217 kontsulta** ( 189 entitate egindakoak: 18 -93 kontsulta- Arabatik, 127 -912 kontsulta-Bizkaitik eta Gipuzkoatik, 45 -212 kontsulta-) eta **partikularren 2.125 kontsulta** erantzun ditu: 294 Araba, 543 de Gipuzkoa y 1.288 de Bizkaia).

2020an % 12ko igoera izan da 2019ko datuekin alderatuta; era berean, adierazi behar da 2019an igoera hori % 50ekoa izan zela aurreko urtearekin alderatuta.

### **3.4.- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza-**

Aipatutako Zuzendaritzaren eginkizun nagusia zerbitzuaren funtzionamendua bateratzea, bultzatzea eta dinamizatzea da. Azken batean, baliabide horren funtzionamendu egokia bermatzen ahalegintzea,

alderdi positiboak bultzatuz eta indartuz eta egon daitezkeen gabezien aurrean zuzenketa-mekanismoak bideratuz eta finkatuz.

Honekin batera elkargoetara bidaltzeko proposatutako deribazioak aztertu, egiaztatu eta kudeatu behar ditu.

Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendaritzan teknikari batek betetzen ditu funtzio hauek.

#### 4.- EKIMENAK 2020

Barne eremuan:

##### 1.- Laneko bilerak

1.- **2020.** urtean **osoko 6 bilkura** egin ziren (2020/01/24, 2020/02/14, 2020/09/11, 2020/10/16, 2020/11/06 eta 2020/12/11) eta **Zuzendaritza eta elkargo desberdinen arteko bilera bost.**

Bilera guzti gauen **gai ordena** eta **edukia** Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Web-orrian eskegita daude.

Bestetik, Zuzendaritzaren eta Zerbitzua osatzen duten gizarte erakundeen artean aldebiko 20 bat bilera burutu dira.

##### 2.- Prestakuntza

Bestalde, sareko kideen prestakuntza-maila hobetze aldera, barneko bi prestakuntza-topaketa egin dira:

1.- "**Espetxe Zuzenbidea eta Atzerritarren Araubide Orokorra**". Informazio-saio praktikoa, Gipuzkoako Gurutze Gorriko gizarte-langile **Brais Varela** zuzenbide eta espetxe-prozeduran espezialista denak egina.

2.- "**Tramitazio telematikoa: atzerritarren Administrazio Prozedura**", Bizkaiko Abokatutzaren Elkargoko abokatu batek eta gaian espezializatua dena emana - **Inmaculada Pérez**-.

### 3.- Gai teknikoan azterketa

Azken urteotan, hobetzen jarraitzen den alderdietako bat atzerritartasunaren arloko gai teknikoei buruz hausnartzeko espazioa eta denbora dira.

Osoko bilkuren lehen zatian, eguneroko kasuistikari eta maila tekniko-prozedurazkoan zein funts eta eduki juridikoan aurkitutako zailtasun nagusiei buruzko azterketa, eztabaida eta hausnarketa egiten da. Beraz, hausnarketarako eta praktikarako espazio bat finkatu da, berau osatzen duten erakunde eta eragileetan sortutako ezagutza eta praktika partekatzea ahalbidetzen eta errazten duena.

Hori dela eta, Aholku-Sarea tresna eraginkorra da euskal gizartea aztertzeke, diagnostikatzeko eta bertan esku hartzeko. Tresna horrek etengabe sakatzen du EAEko biztanle migratuen errealitatea, eta, horrela, funtsezko potentzial eta erabilgarritasuna ematen du.

Hori lortzeko, besteak beste, gailu horren ezaugarri diren bizitasuna eta freskotasuna erabiltzen dira. Gailu hori egunero partekatzen den eta sareko txatetan lan egiten den kasuistikari buruzko kontrastearen eta eztabaidaren bidez egiten da. Hori dela eta, ezagutzarako eta informaziorako tresna eguneratua da, bai administrazioen praktikari dagokionez (EAE, aldundiak eta Estatuko Administrazio Orokorra), bai elkarte-ehunari dagokionez, eta ikuspegi osoenak eta berrienak ematen dizkio zerbitzuari bere jarduera garatzerakoan.

### 4.- Barne lotura

Aurrerapen nabarmenena gauzatu da. Agian aurrerapen garrantzitsuena da. Taldea osatzen duten pertsonen arteko harremanak indartu dira.

Eguneroko lanak, elkarren arteko begiruneak, konfiantzak eta pertsona oinarri duen ikuspuntuak biltzen gaitu. Horrela *zerbitzu* honek duen altxorrik preziatuena bere lan-taldea da.

## 5.- Barne ebaluazioa egiteko inkestak

Aurten, gizarte-erakundeek hiru lurraldeetako Abokatutzaren elkargoetara bideratzen dituzten erabiltzaileei zuzendutako inkestaren kudeaketari amaiera eman zitzaion. Inkesta honetan, 10 galdera ingururen bidez, bideratutako erabiltzaileek zerbitzua bere osotasunean ebaluatzen dute, sartzen denetik SAJEko abokatuak artatzen duen arte.

Nolanahi ere, oraindik bete dira inkesta batzuk -2019. urtearekin alderatuta, urriak-, baina balioespenak oso positiboak izan dira.

Datu orokor horiek oso positiboak dira; hala ere, horrek ez du baztertzen batzuetan hobetu daitezkeen hondar-jardunbide txarrak egotea. Ildo horretan, erabiltzaileen kexa puntual batzuk jaso dira, abokatuen elkargoetara bidaliak. Horietan guztietan, kasuan kasuko elkargoaren ordezkariari eman zitzaion horien berri, eta kasuan kasuko jarraipena, analisia eta ekintza egin zitzaizkion.

## 6.-Txostenak

### 6.1.- Familia-erreferenterik gabeko adingabe eta gazte atzerritarren arreta juridikoaren artikulazioari buruzko txostena

Aholku-Sareak, 2019ko azaroaren 21eko bileran, lau pertsonaz osatutako talde tekniko bat eratzea erabaki zuen, bakarrik dauden adingabe eta gazte atzerritarrei arreta juridikoa emateari buruzko txosten teknikoaren lehen zirriborroa egiteko.

Talde horrek 2019ko abenduaren 12ko osoko bilkuran aurkeztu zuen zirriborroa, eta jardunaldi horretan hainbat ekarpen eta gogoeta egin ziran. Halaber, zirriborroa idazteko ardura hartu zuten sareko bi pertsonari (bat Zuzendaritzakoa eta bestea Biltzenekoa) eskatu zitzairen beharrezko ekarpenak egiteko eta dokumentua behin betiko ixteko. Txosten horren berri eman zitzairen 2020. urtearen hasieran arlo horretako alderdi garrantzitsuei eta erreferentziazko eragileei, eta dokumentu hori lantzen eta haren edukia beste eragile batzuekin eta hainbat forotan partekatzen joan dira. Nabarmenezkoa da, bereziki, Arartekoarekin izandako topaketak, txosten horren edukia azaltzeko, bereziki arau-esparruari

buruzko hobekuntza-proposamenen atalean, bai eta pertsona horien aholkularitza juridikoa antolatzeko moduari dagokionez ere.

## Kanpo eremuan

### 1.- Zerbitzuaren difusioa

Aholku-Sarearen funtzionamendua argitzeko eta harremanetarako erreferentziak zehazteko, difusio bideak landu dira (informazio-liburuxka, kartela eta zirkularra).

Sailaren Web-orria (Aholku-Sarearen atala) eguneratu egin da. Bertan, Zerbitzuaren funtzionamendua, informazio-liburuxkak, memoriak, bilera-aktak (2015-2020) eta Zerbitzuaren funtzionamendua azaltzeko landutako bideoa txertatu dira.

### 2.- Interlokuzioak

#### Zerbitzuari buruzko azalpenak eta elkarrizketak (2020. urtea):

Sareko ekintza-multzoek kontaktu eta topaketa ugari izan dituzten arren, horietako bi nabarmendu behar dira:

**1.- 18 eta 23 urte bitarteko familia-erreferentziarik ez duten atzerritar nazionalitateko gazte migratzaileei** dagokienez hautemandako orientazio juridikoko beharrei dagokienez. Aholku-Sareak eskaintzen duen orientazioari buruzko ebaluazioa, Arartekoarekin eta arlo horretan lan egiten duten erreferentzia eta garrantzi handiko erakunde sozialekin (Peñascal Fundazioa, besteak beste) egindako topaketen eta lan-saioen bidez.

**2.- Hezkuntza Sailarekin** bilerak egitea, kolektibo horri dagokionez eta, bereziki, egoera irregularrean dauden ikasle migratuen zatiari dagokionez, bere eskumen-eremuari buruzko hainbat gai aztertzeko. Zehazki, aipatutako sailaren administrazio-jardunbideen azterketa eta aholkularitza, eta sortzen ari diren gatazka-arloak. Azpimarratu behar da lankidetzaren horren sarrera Aholku-Sarera iritsi ziren kontsulten bidez egin zela.



### 3.- Saio Informatiboak

Atzerritarrei eta bertakoei (enplegatzaileak eta abar) zuzendutako atzerritarren arloko informazio-saioen programa mantendu egin da. Guztira, 16 saio egin dituzte EAEko hainbat udalerritan (Bilbo, Villabona, Getxo, Hernani, Zarautz, Ermua, Urretxu...) eta 364 (186 emakume eta 178 gizon) lagun joan dira horietara.

Baliabide honek testuinguru batean izan zuen jatorri eta gaur egun, berriz, errealitatea oso ezberdina da eta baliabide honen oraina eta etorkizunari buruz hausnarketa burutu behar da.

#### DATU ESTADÍSTIKOAK 2020

- **Hirugarren sektoreko erakundeek arreta emandako pertsonen kopurua: 7.291 (18.697 kontsulta)**
- **Hirugarren sektoreko erakundeek arreta emandako profesionalen kopurua: 1.335**
- **Biltzenek arreta emandako kontsulten kopurua: 3.242**
- **Hirugarren sektoreko erakundeek eskainitako informazio-saioak: 16 (364 erabiltzaile)**
- **Abokatuen elkargoetara bideratuak: 243**

## 5.- EBALUAZIOA 2020

Lehenik eta behin, azken urteko gertaerak kontuan hartuta, Aholku-Sarea bere lana egiten ari den jarduera-esparru berriaren testuingurua labur-labur azaldu behar da. Eskematikoki, hiru gogoeta nagusitan laburbilduko ditugu:

1.- **Osasun-krisia** baino lehen, atzerritarren pobrezia-indizea bertakoa baino zazpi aldiz handiagoa zen, gutxi gorabehera. Horrek esan nahi du krisiak eragin handiagoa duela, eta halabeharrez izango duela, atzerritarren kolektiboan; eremu hauetan, hain zuzen ere: gehiegizko okupazioa duten etxebizitzetako bizigarritasun-baldintzetan, enplegu prekarioetan (ostalaritza, etxeko enplegua) eta kolektibo horren osasunean eta ongizatean.

2.-**Herri-administrazioetara jotzeko ezintasuna.** 2020ko martxoaren 14an emandako alarma-egoeraren deklarazioak, herrialdearen jarduera geldiarazteaz gain, epe administratibo eta judizialak etetea ekarri zuen. Administrazio-eraikinak itxi zirenean, alarma-egoeraren lehen egunetan nahasmena eta inprobisazioa sortu ziren, eta sistema bat ezarri zen, administrazio-ordena guztietan orokortuz joan zena. Sistema hori, funtsean, administrazio elektronikoa edo birtuala administrazio-izapide askotara sartzeko ate bakar gisa ezartzean datza. Kolektibo migratzailea da eten digital handiena duen taldeetako bat, Internetera, konexiorako gailuetara, alderdi kulturaletara, hizkuntza-alderdietara eta abarretara sartzeko zailtasunagatik. Euskadin bizi den atzerritar jatorriko biztanleriaren zati handi bat administrazio-egonkortasuneko egoeran dagoen arren, beste batek administrazioarekin etengabe harremanetan egotea eskatzen du dokumentazioa berritzea ziurtatzeko: errolda-ziurtagiria, lan-bizitza, Lanbide, eta abar.

3.- **Atzerritarren bulegoa. Telematikoki sartzeko betebeharra.** Ildo horretan, nabarmendu behar da agerraldi pertsonala eskatzen duten hasierako eskaeretan, hala nola, errotze soziala, errotze familiarra, errotze laborala, komunitateko senidearen txartela, adingabeen egoitza-txartela, gerora sortutako gaixotasunagatik bizilekua eta aurretiazko baimenen aldaketak, besteak beste, prozedura horietan Estatuko Administrazio

Orokorrak eta Periferikoak esaten genuen bezala, hau da, Bizkaiko eta Gipuzkoako Gobernu Ordezkariordeak, bide telematikoak ezarri dituzte eta praktikan, aurrez aurreko arreta itxi egin dute. Era berean, aipatu behar da atzerriartasun-bulegoei planteatu zaizkien proposamenek edo iradokizunek, oro har, ez dutela erantzun positiborik jaso. Horren ondorioz, beharrezkoa ez den eta zalantzazko legezotasuna duen betebeharrak bat sortu da administrazio-kasuistika horretan dauden migratuen kolektiboarentzat. Pertsona horiek hitzorduen birsalmentan eta merkataritzan parte hartu behar dute (mintzalekuetan goraka ari den negozioa), edo beren poltsikoetatik ordaindu behar dute 200/250 euro inguruko zenbatekoa, baimendutako hiru administrazio-taldeetako baten, baimendutako administrazio-graduatu baten eta -kudeatzaile baten kargurako izapidetze telematiko baten truke.

Nabarmendu behar da jokabide horrek ondorio garrantzitsuak eragin dituela Sarea osatzen duten erakundeek ematen duten zerbitzuan (hitzorduen eskaera gehiago, aurreikusi gabeko gaiei buruzko aholkularitza, arazo benetan larriak kudeatzeko ezintasuna eta abar). Eragindako migratuen kolektiboari dagokionez, erabiltzaileei esan bezala, eskaera telematikoki egiteko baimena duten taldeetako bati zerbitzua ordaintzea beste irtenbiderik ez dago. Beste aukera bat ziurtagiri digitalaren bidez egitea da, baina arazoa da erabiltzaileak egoera irregularrean dauden edo AIZ bat esleituta ez duten hasierako eskaerek ezin dutela akreditazio- edo sinadura digitalaren sistemara sartu, eta hori izateko aukera dutenek zailtasun handiak dituztela erabiltzeko orduan: ez dakite nola erabili edo ez dute ezaugarri tekniko egokiak dituen ordenagailurik. Hau benetako **trauma soziala** bihurtu da.

Zailtasun guztiak gorabehera, Sare horrek, bere aukeren barruan, **2020rako ezarritako helburuak bete ditu**. Zerbitzuan sartu diren pertsona guztiek, gutxi gorabehera 10.028 pertsonak, laguntza juridiko egokia jaso dute. Egia da hilabete askotan aurrez aurreko arreta emateko ezintasunak eta administrazio publikoekin zenbait izapide kudeatzeko zailtasunek zaildu egin dituztela orientazio eta aholkularitza juridikoko zereginak. Egoera horren ondorioz, nabarmen handitu dira kontsulta telematikoak (% 12) eta murriztu aurrez aurreko arretak (% 10). Nolanahi ere, helburu nagusia – Zerbitzura jotzen duen orori aholkularitza juridikoa ematea – bete da.

Azkenik, 2020. urteko lan-ildo nagusi eta espezifiketako bat bakarrik

dauden adingabe eta gazte atzerritarrei laguntza juridikoa ematea izan da. 2020an jarraipena eman zitzaion 2019an egindako lanari, eta, batez ere, hiru esparrutan oinarritu dira ahaleginak: arreta juridikoa hobetzea, erreferentziazko zentroei orientazioa eta prestakuntza ematea eta hobetzeko eta zuzentzeko proposamen zehatzak egitea.

Halaber, urteko azken hiruhilekoan, aurreko gaiarekin duen lotura dela eta, Hezkuntza Sailarekin komunikazio-bide bat mantendu da, arlo horri lotutako alderdi guztiak orientatzeko, bere eskumen-eremuan baitaude.

Azken batean, urtea oso zaila izan bada ere, zerbitzuak bere eginkizuna behar bezala bete du, lanerako eta egokitze duen gaitasun handia erakutsiz, bai eta konpromiso pertsonal eta profesionala ere, alde aurreko edozein itzaropen gaindituz.

Nolanahi ere, adierazi dugun bezala, oraingo eta etorkizuneko **testuinguru telematiko berriak**, baita beste hainbat faktorek ere, ezinbestean eraman behar gaituzte hausnarketa lasaia, adostua eta ibilbide luzekoa egitera, non, erreferentziazko hainbat erakunderen gomendioei jarraituz, proiektio handiagoa ematearen aldeko apustua egingo den, tresna juridiko egokietara egokituta; hori guztia, asilo-migrazioaren eta harrera-migrazioaren arloko euskal politika publikoak sendotzeko.

